

André Looijenga

Monastirrerako tren



Itzulpena: Garazi Ugalde Pikabea

bestehitzak
|||

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



oarewurden
|||

André Looijenga

Monastirrerako tren

Itzulpena: Garazi Ugalde Pikabea

Budapest → Beograd

Mazedoniako film zaharrenetariko batek Mehmed V.a Reşad sultanak Bitolara egin zuen bidaia biltzen du; garai hartan, Monastir deitzen zioten oraindik. Fotograma zuri-beltz keinukarietan gizon talde bat ikusten da, fezak jantzita, tren geltokiaren parean harat-honat. Atea irekitzen da, eta haien moduko uniforme beltza daraman gizon handi bat irteten da, feza buruan eta sable bat aldean zintzilik dituela, bere presentzia soilarekin bidea irekiz. Taldeari agur egin eta gero, sultana gurdi ireki batean sartzen da, plano-jauzia, eta sultana handikiz inguraturik ageri da eskailera altu batean.

1911n izan zen hori, Mehmed V.a sultana junta militar baten panpina bat besterik ez zen garaian. Atzera eginez, islamaren kalifa / sinestunen printzea / Otomandar Inperioko sultana / Erromako enperadorea / bi leku santuen zaindaria eta beste zenak egindako bidaia hura izan zen Otomandar Erresumak Europako hego-ekialdean utzi zuen azken arrastoa. Hurrengo urtean, basailu izandako ekialdeko ortodoxoen koalizio batek Turkiaren Europako zatia inbaditu zuen, zeina gatazka zibilean sartua baitzen. Koalizioaren zati bat Üsküpetik eta Monastirretik gertu arrakasta izan zuten serbiarrek osatzen zuten; hura izan zen, atzera begira, laurogei urte geroago Mazedoniako Errepublikak independentea sortzearen arrazoia. Pintzelkada orokor haiek zirriboratu zituzten mendea aurrera joan ahala idazlumaz marraztu, eta hormigoiz eraikiko ziren mugak.

Trenaren azelerazioak eten dit loaldia. Burdinazko zubi luze baten gainean doazen burdinazko gurgil-ardatzen triki-trakak iratzargailuarena egin du, esnatu naizenetik minutu batera edo. Hori Danubio izango zen ziurrenik, pentsatu dut, beraz Novi Sad utzi berria izango dugu oraintxe. Argi-izpiak gortinen atzetik. Koloretan. Jaiki egin nahi dut ohe estu honetatik. Gorputza mugituz libratu naiz beheko literatik, oinak zapatetan sartu, eta isilka igaro dut konpartimentuko atea. Korridore estuan berde argia da ikuspegia, leiho bat ireki dut: goiz udatiarra arnastu dut eta pentsatu, baietz, honelaxe emango diodala hasiera Bitolarako treneko egunerokoari.

Berriro hidratatzeko, azken zurrutada eman diot bart gauean hartu nuen freskagarri austriarri; limoi eta garagardo zaharraren zaporea du. Nire begi nekatuek Serbiako etxarteen lehen inpresioak irensten dituzte pasadizoan. Zuhaitzak, hosto ilara arraroak adarretan. Hiri txiki bat, salmoi koloreko tren geltoki bat duena, graffitiz zikindua. Gizon bat dago eserita egurrezko banku higatu batean, ezpaldutako zutabe marroien gaineko hegal baten azpian; emakume bat zain dago nasa hondatua. Инђија du izena: *Indija*, eta India goizean goiz tankerakoa izan litekeela bururatu zait. Ondoren etxeak, estalpeak eta mendi joriak. Kanpandorre barroko zuriak.

Hau Voivodina da oraindik, jakina, Serbiako iparraldea, bi mendez habsburgotarren hegoaldeko mugako lurralde izandakoa.

Goizaldeko ordu bata aldera esnatu naiz berriro. Pasaporte kontrola. EBren mugan, polizia hungariarrak banan-banan ikuskatu ditu konpartimentuak. Uniformean probintziako armarrria dute: zimitarra daraman husar bat irudikatzen da alde batean, burua moztuta duen turkiar bat, bestean. Gero ate soinua ixten, makineria triki-traka: maniobra-eremu bat eta gaua horiz koloreztatzen duten kale-argiak. Polizia serbiar bat atez ate dabil pasaporteak zigilatzen. Ireki eta itxi ari diren ateen soinua gero eta urrunagotik dator, aginduak ematen dituzten oihuekin batera. Atearen beste aldean, korridorean zain dago egunsentirako bideari ekin dion gauaren zatia.

Inork ez du bidaiatzen bagajerik gabe. Guztiok daramatzagu geure itxaropenak aldean, bizitako esperientziak bizkar-zorroan, eta aurreiritziak maletetan.

Niretzat Jugoslavia gerraren sinonimoa zen, telebistako albistegietako beste edozein gerrak baino gehiago hunkitu baininduen. Bederatzi edo hamar urte nituen Jugoslavia gerra zibilaren ondorioz zatitu zenean. Adin horretan hasi nintzen, inguratzen ninduen munduko loturak distantziatik ulertzen ez ezik, mundu horretako desadostasun eta tirabira txikiei antzematen. Ni behintzat horrelako haurra nintzen. Haurren albistegietan kontatu zidaten nola serbiarrak, kroaziarrak eta musulmanak elkarren bizilagun izan ziren denbora asko ez zela, eta ulertu nuen bizilagunen arteko desadostasun txikiek muga zatitzaile hilgarriak ekar zitzaizketela. Amesgaiztoetan nire herri frisiarra imajinatu nuen bere talde konfesionalen arrasto sotil baina nabariekin; esaterako, nahiago genuela dorre zahar luzea eta puntadun leihoak zituen eliza bat, toga eta txapela beltzeko bikario batekin. Horren argitan, bereizketarik inozoenak ere ez ziren azalekoago Jugoslavian desplazamendua, mortero-erasoak eta desagerketak eragin zituzten haustura abstraktuak baino. Telebistan erakutsitako paisaia jugoslaviarra ere ezaguna zitzaidan: mendixka basoz beteek oporretan ezagutu nuen Alemania ziruditen. Treneko leihotik kanpora begira nagoela, etxe karratu berdintsuak bistaratu zaizkit, lau aldeko teilatu gorri marguldu apalekoak, hormigoizko egituraren adreilu-horma bukatu gabeekin.

Isiltasuna da nagusi oraindik korridorean. Hungariarrak ere lotan daude oraindik aldameneko konpartimentuan.

Atzo iluntzean, hamarrak aldera, Vienatik Bukaresterako trena utzi nuen Budapest-Ferencvárosen, tren hau hartzeko. Ferencvárosek gehiago zuen maniobra-eremutik tregeltokitik baino: trenbideak zituen hormigoizko espazio huts bat zen. Trenean bazen Serbiako gizon gazte bat ere, Hungarian txerri haztegi batean lan egin zuena eta orain etxerantz zihoana Bačka Topolara, astebete barru edo Danimarkara joan aurretik. Han txerriak bazkatzeagatik irabazten zen hileroko ordainsaria Hungarian halako laukoa zen, «albaitari» prestakuntza eta ingeles egokia izanez gero. Merkantzia tren bat igaro zen. Gero, tren-makina batek txistu-hotsa egin zuen izkina inguratutakoan. Belgraderako trena hurbildu zitzaigun abiadura txikiagotuz. Begiratu azkarra egin nien bidaia-txartelei, «bidaia on» presatia jaso, eta maletarekin lasterka joan nintzen nire zenbakia zuen bagoira.

Trenera igo, eta herrestan egin nuen aurrera zegokidan ohearen bila. Ordurako bertan ziren lau neska gazte. Ikuskatzaileak ere ekin zion lanari, eta bidaia-txartelak erakutsi nizkion. Emakumeetako bat egoera azaltzen ahalegindu zen. Ikuskatzaileak bidaia-txartelak eskatu zizkidan, serbiera hutsean. Zarata handia zetorren ondoko konpartimentutik. Bi hungariar hordi agertzean argitu zen neska frantsesetako bik zergatik ez zuten sartu nahi izan haien konpartimentu berean. Ba ote zegoen lekuak trukatzetik? Ez, hau nire eserlekua da, berretsi nuen. Ikuskatzaileak nire txartelak behar zituela esan zidan altuago serbieraz.

Nik neureari eutsi nion: hau nire eserlekua da, hauek nire txartelak. Baina ez nuen lortu neskek hungariarrenera bidaltzerik, eta, beraz, «konpartimentu honetan gera zaitezkeite laurak» esan nien. Ikuskatzaileak eskua jasota jarraitu zuen, ingelesa hitz egiten zuen mutil bat gure ondotik igaro, eta azalpena eman zidan arte: txartelak ikuskatzaileari eman behar dizkiozu, bihar jasoko dituzu bueltan. Hala, konpartimentura sartzeko baimena eman zidan. Neskek Erasmus programako ikasleak ziren Budapesten, eta asteburu pasako bidaian zeuden. Ingelesa ondo ulertzen ez zuten, eskola garaitik gogoan nuen frantses mantsora aldatu nintzen adeitsuki. Baina elkarren artean hizketan jarraitu zuten modako frantses kolokiala izan zitekeen txinera batean. Magyarrak ez ulertzeko moduan hizketan ari ziren korridorean, galdutako konpainiagatik purrustaka, gure konpartimentuko atea itxi ondoren ere. Bidaia-kroniken idazle hobea banintz, haien moduko bizilagunekin elkartuko nintzatekeen zerbait edateko, baita halako bidaia egun luze baten ostean ere. Nekeak jota nengoen, ordea. Ohexkak ireki genituen. Lau neska frantses erraz kabitzen ziren hiru ohetan.

Aharrausika ari naiz oraindik. Artasoroak. Lupulu lursailak. Norbait arrastaka entzun dut atzean. Bi hungariarretako batek komunera joateko beharra du. «*Jó reggelt!*», agurtu dut bere hizkuntzan. Harri eta zur, gizonak zerbait erantzun dit marmarrean.

Serbiak bigarren eskukoa dirudi. Orain bai orain ez, trenbidearen inguruko etxebizitzek aldirietakoak dirudite. Gero István eta István, biak agertu zaizkit parean, jakin-mina aurpegieta, hungarieraz galdegitera. Hungariako trenbide-sareko plastikozko txartel txiki margulduak erakutsi dizkidate. Nire *magyarul* apurrak salbamendu-buia dira haientzat. «*Nem értem*», desenkusatu naiz. Belgraden gara ia. Afixa bat agertu da, amaieran Burgas duten leku-izenen zerrenda batekin: Bulgariako Itsaso Beltzeko kostara bitarteko geltoki guztiak dira. Ohartarazi diet ez dutela hemen Nov Beograden jaitsi behar, geltoki nagusian aldatu baizik. Leihotik ekialdeko bi asiar ikusi ditut trenetik jaitsi berritan, nasa postapokaliptikoan beren maleta handiekin harat-honat noraezean, trena berriro abiatzen den bitartean.

Beograd → Niš

Belgradeko geltoki nagusia agertoki bateko dekoratu soila da. Eraikina trenbide multzo baten akaberan dago, L forman eta ziape kolore hori koipetsuz margotuta. Ezbairik gabe, XIX. mendeko erlikia bat da. Zinta itsasgarri batek eusten dio, besterik gabe. Badirudi film bateko dekoratu izateko eraiki zutela, eta filmaketaren ondoren atzean geratu zirela estrak, 50eko hamarkadaz jantzita. Orain zaharturik, bankuetan eserita daude, nor bere puskak plastikozko poltsetan hartuta. Tren aparkatuek baino ez diote bizirik eusten bidaia posible delako ilusioari.

Okerra litzateke denbora hemen gelditu zela esatea. Belgradeko geltokian, atzerantz egiten du denborak.

Ez dago iragarki taularik trenak nondik eta noiz irteten diren dioenik. Nasetan, helmugan berri emateko pantailak daude, baina ez dabilta aspalditxotik. «Non dago Skopjerako trenan?», «Han, Sofiakoaren ondoan». San Petersburgotik etorritako bagoi bat igaro dut, Moskutik etorritako bat gero. «*Skopje?*», «*Njet, Sofia*». Bi ikuskatzaile daude nasaren hasieran. Haietako batek alemanez daki. «*Nach Skopje?*», «*Nein*».

Nahastuta begiratu die nire txartelei: «*Ihre Fahrkarten sind in Ordnung. Aber Zug fährt nicht. Nächste Woche fährt*»¹. Baina Sofiarako trenan har dezaket eta Nišen geratu, Skopjerako erdibidean. Handik autobusa har dezaket Skopjera. Nire azken helmugaz, Bitolaz, bihar arduratuko naiz.

Istvánék eta Istvánék trenera jarraitu didate. София dioen bigarren klaseko bagoia erakutsi diet hungariarrei. Haiekin joateko keinua egin didate. Alemanez egiten duen ikuskatzaileak lehen klaseko bagoira bideratu nau, ordea, eta atseginez eseri naiz eserleku eroso huts batean. Gaur ez da bi abiaturako Europarik izango tren honetan; niretzat bai, ordea, bi tren klasetan banatutako Europa bat. Garaiz iritsi naiz, abiatu da trenan. Bagoiak tapiz leun bat dauka, eserlekuak tarte zabalekoak dira; bidaiari batzuek oinetakoak kendu dituzte berehala.

Konturatu orduko Belgradetik kanpo gaude. Bidean zehar, garai bateko Jugoslaviako trenbide-konpainietako bagoien hondakinak ikusten dira. Badirudi zuhaixka erraldoiak landa eremuaz jabetu direla. Zaborreriaren gainean lore koloretsuak hazten dira. Sofiarako nazioarteko tren hau izango da zati honetan lanean ari den tren bakarra; etapa bat, garai bateko Orient Expressaren bidean. Herri hauetan, non zastava hautsezatuak trenbidean zain egoten diren eta uniforme urdin ilunez jantzitako emakumeak diren geltokietako nagusi, zaharrak lehen klaseko bagoira igotzen dira, geldialdi batzuen ondoren berriro ere jaisteko.

Nire pare-parean eserita, gizon bat erretzen eta telefonoz hizketan ari da. Leihoa irekita ari da erretzen, behintzat. Dei bakoitzaren ostean, gero eta haserreago ematen du. Lehenago zapatak nola, orain galtzerdiak kendu ditu, eta beste zigarreta bat piztu. Paper batzuk txikitu, eta zatiak leihotik bota ditu; zurrunbiloan doaz, trenaren arrastoan. Bideko herrixka batean gizon bat dago nasan zutik, bidaiariei oihuka eta arneguka. Badoa trenan, bidaiaria eserleku erosoan barneratu da eta loak hartu du.

Telefonoak berriro jo dio hainbat aldiz, baina ez dio gehiago erantzun.

Stalać herrixkaren ondoren, haran estu batean barneratu gara, arroila batean. Trenbidearen alboan ez dago asfaltatu gabeko errepiderik ere. Trenan da motordun ibilgailu bakarra, larrez, laborantzako lursail txikiz, basoz eta ibaiz ostutako paisaian. Beltzez jantzitako bi emakume txiki konkortu beren soroetarantz doaz bidezidor batetik. Eliza gangaduna eta kanpandorra dituen zuriz luzitutako monastegi txiki batean, trenan lorategitik igaro da ia. Treneko leihotik Erdi Aroa igarotzen ikustearen pareko da.

¹ «Zure bidaiatzaileak ondo daude, baina ez dago trenik. Datorren astean aterako da», jatorrizkoan alemanez emana (itzultzailearen oharra).

Azkenean, Nišen geratu da tren, zementu fabriken hiri batean; hautsa pilatzen dutela dirudi, baserri bateko ganbara zikinean gordeta baleude bezala. Itxuraz trenbide-eremu baten erdian, oinez noa herdoil koloreko legarretan. Epel eta itogarri dago eguerdi aldean. Tren-makina askatu, eta beste muturrera eramán dute. Ordenarik gabeko bagoi multzoei begira nago, trenak Sofiarako bidea jarraitzen duen bitartean. Nišeko geltokiko eraikinak bunker gris baten tankera du; keinu axolagabe batekin uzten die pasatzen bidaiariei. Iritsi naiz autobus geltokira, kale nagusi batean txarteldegia eta otarteko-dendak dituen kontainer ilara batera. Hiru ordu barru arte ez da iritsiko Skopjerako autobusa.

Bidaia-txartelak poltsikoan, parke baterantz abiatu naiz, eta kiosko baten ondoan eseri naiz itzaletan, haren kontra. Eliza zuri eraiki berri bat dago bertan, Sveta Petka. Aldizka norbait irteten edo sartzén da handik: kandelak pizten dituzte elizaren ondoko kutxa beltzetan, eguzki-argi distiratsuari desafio eginez. Langileek elizainarengana jo dute bi zulo egiteko, baina, lehenengoa egin ondoren, premiazkoa dute zigarreta erretzeko geldialdia. Elizainari, gizon burusoildu agintzaile txikia bera, adin ertaineko emakume bat ari zaio hizketan. Elkarrizketa berotzen hasi da, erdi serbieraz, erdi ingelesez. «Akats handia», ulertu diot emakumeari, eta «meskita». Elizainak jarraitu du, esanez, «meskita ez zegoen hemen, han zegoen!», atzamarrez erakusten ziola. Islamaren gurtzarako eraikin bat eraitsiko ote zuten duela gutxi, orain eliza ortodoxo hau dagoen lekuan?

Kanpoko kafetegi batean eguneko lehen kafe turkiarra eskatu dut, loa uxatzeko eta Ekialdearekiko begirunez. Eserleku huts bat dago mahai batean, irakurtzen ari den gizon baten ondoan. Besteak beste parean duen liburuak adierazten du nekez izango dela bertakoa. Ingelesez eskatu du, plastikozko ogi poltsa bateko txanpon serbiarrekin ordaindu, eta *Elkarrizketak Jainkoarekin* liburua irakurtzen jarraitu du zintzoki. Bien bitartean, nire orain arteko bidaiei buruzko oharrak hartu ditut. Antza, aldamenekoak nahiago du bere Aro Berriko Jainkoarekin mintzatu.

Niš → Skopje

Ez dut «Skoplje»rako lotura galdu nahi; horregatik eman dut hainbeste denbora zutik kale jendetsu honen bazterrean, 30 minutuko atzerapenarekin iritsi den autobusaren zain. Atze-atzean baino ez dago eserleku huts bat, magalean poltsei eusten dieten aurpegi ilunen artean. Beroak eta lo faltak zertxobait logaletu naute, baina orduan bidea sigi-sagaka hasi da ikusgarri, Grdelička klisura Moravako arroila handian barrena. Serbiarrek ere zorrozki begiratzen dute leihotik. Zahartzen ari den bidean goaz, trenbidea lagun, aldats basotsuetan gora. Gure gainean, autobidea egiteko eraikitzen ari diren mendiko zubi garaiak ikusten dira. Autobide berria ere benetan ikusgarria da.

Askoz ere beherago, trenbide-zubi distiratsu bat ikusi dut halako batean. Monumentu bat du ondoan. Zubi hori bonbardatuko zuen NATOren hegazkin batek 1999an, bidaiari-tren bat bertatik igarotzen ari zela. Miloševićen aurkako Kosovoko gure gerra aratz txikia. Gogoan dut

politikari holandesen zirrara burugabea, laurogeita hamarreko hamarkadako kontsentsu liberal zabalen mozkorraldian. Gerra hura okerragoak saihesteko bidezko gerratzat aurkeztu zuten. Bigarren hezkuntzako bosgarren urtean nengoen eta, 17. urtebetetzea hurbildu ahala, Defentsa Ministerioaren gutun bat jaso nuen, zeinean ziurtatzen baitzidaten, asmoa ofizialki bertan behera utzi ez bazuten ere, eten egin zutela.

Handik gutxira *Im Westen Nichts Neues* [Zaharrak berri mendebaldean] irakurri nuen, adin guztietako nerabe naifentzat gomendatutako eleberria. Hor amaitu zen gerrarekiko nire istorioa.

Bidaian zehar egin ditugun geldialdiek arindu dute pixka bat autobusa. Vranje herri txikian emakume gazte bat eta haren aita sartu dira. Emakume sendo bat da, dotore jantzia, ile beltzekoa, eta ezpainak gorritz margotuta daramatza. Atzerriko hizkuntza batean liburu bat irakurtzen ari naizela, haren begiradarekin egin dut topo une batez. Itxaropenen bat edo beste piztuko zuen horrek. «Zure izena?», galdetu dit. Erantzun egin diot; nekatuta egon arren, ez zait axola pixka batean hitz egitea. Bere izena esan, eta adi begiratu dit. «Eta abizena?», jarraitu du, eta gero: «zuk, lagunak Facebooken?». Berak egiten ditu galderak. «Kumanovëkoa naiz», esan dit. Azken bokala irensteko duen moduak albaniar-mazedoniarra dela adierazten du. Aita ondoan eserita du, eta argi dago ez duela elkarrizketako hitz bakar bat ere ulertzen. «Ezkonduta zaude?», jakin nahi du. Deseroso sentitzen hasi naiz, eta ezetz erantzun diot. Eguzkitako betaurrekoak jantzi, eta beste aldera begiratu dut. Harro, ez ikusiarena egin du berak bueltan. Hain ergela izateagatik zigortu dut neure burua Kumanovoko geltokira iritsi garen arte.

Zalantzarik gabe Serbia hegoaldera iritsiak gara, hala erakusten baitute herrixketako meskitek. Gertu gaude Bujanovacetik, albaniarren bizileku den Serbiako zatitik. Kosovoren kanpoaldean, hain justu.

Mazedoniarekiko muga benetako muga bat da; *pasošia* prest eduki, autobusetik jaitsi eta Serbiako aduanaren etxoletara jo beharra dago. Ez didate irteerako zigilurik jarri. Ondoren, Mazedoniako aduanaren txaboletara joan behar izan dugu oinez, autobusa atoian. Gure *pasošia* eskuan genuela, aduanako poliziengana eta, gero, autobusera berriro. Paperak itzuli zain egon gara. Aldamenekoaren paperetatik ondorioztatu dut gaur egun mazedoniar batek lanerako bisa behar duela Eslovenian luzaz geratzeko, herrialde bakarra izan baziren ere. Niri itzuli dizkirate paperak azkena.

Berandu da Skopjera/Shkupera iritsi garenerako. Mazedoniako hiriburua ekialdera eta mendebaldera hedatu zen probintziako hiri bat da. Ofizialki elebiduna. Geltokiaren ondoko zubi batetik ikusita, hirigune berri tamalgarria gertu-gertu dago, azalera berdindu baten gainean. Skopjeko geltoki nagusia hormigoizko balea eraikin erraldoi bat da. Lurrikara gogor batetik hogeitaz urtera, ehunka kilometro barnealdera eraman zuten herrestan kreatura, eta zutabe zabalez osatutako ohe batean utzi zuten lotan. Urte hauen guztien ondoren, tren geltokiak bukatu gabea dirudi oraindik.

1963ko uztailearen 26an, lurrikara batek birrinduta utzi zuen hiria, goizean goiz, lurrikarek beldurgarriro ohi dutenez. Skopje berreraiki zutenean, ez zuten ordura arte izan zena berregin nahi izan, eta utopia bat eredutzat hartuta berreraiki zuten. Arkitekto japoniar bat arduratu zen plan nagusiaz. Auzo berriak etxebizitzaz eta bizitoki-eremuz osatu zituzten. Hirigunean lekua egin zioten tartean berdegune zabalak zituen anbizio handirik gabeko modernismo horizontal bati. Diktadura garaian eraikitako hiria izateko (aurrerakoa izan arren), demokratikoa zen erdigunea, edo berdinzalea, behinik behin. Kale zabalak ez ziren sekulako monumentuetan, jauregi edo katedral batean amaitzen, baizik eta Mazedonia plazan, leku ireki batean. Eraikin publiko handiak –kontzertu aretoa, GTC saltoki-gunea– ez ikusteko moduan eraiki ziren, hormigoi xume eta horizontalez. Plaza nagusian, Skopjeko sinbolorik baliagarri eta zaharrenetarikoa zen arretagunea: hareharrizko zola maiztu leunezko Kamen Most Erdi Aroko zubia, hiri turkiar zaharraren eta berreraikiaren arteko lotura.

Azken-azken urteotan, bi zubi lehiakide eraiki dizkiote eskuinetara Harrizko Zubiari. Zubi horiek ez dute dromedario-konkor dotorerik edo iluntzeko desertuaren horirik. Plastiko zurizko piezak dira, agintari helenistikoen eta Mazedoniako literatur kanoneko izen onargarriagoen brontze koloreko plastikozko estatuez hornituak. Jenderik gabeko zubiak dira, hein batean, kale-argietatik datorren soinu zorrotzgatik. Ofizialki eltxoak uxatzeko izan arren, antza denez, pinturazko bonbak baliatzen dituzten manifestariak uxatzeko ere bada.

Nolanahi ere, alde berriari azkena gehitutako inguruetan barrena ibili naiz; ez dut kitsch nazionalistan eta proportziorik ezean sakonduko, ordea, ez baitut krimena harridura naif batekin zurituko. Nikola Gruevskiren eta kideen Skopjeko azken eraikinak kriminalak dira (ez ironia postmodernoz kriminal, gustu txarra zutelako, objektiboki kriminal baizik): «Skopje 2014» ustelkeria orokortu baten gainean eraiki zuten, beharrezkoak ez ziren eraikinak egiteko zorpetuz, eta alderdikideen poltsikoak dirutzeko moduan, herrialdeko beste zenbait lekutan zerbitzuak erortzen ari zirelarik, eta emakumeek ehun fabriketan soldata txikien truke gogor lan egin behar izaten zuten bitartean.

Vardarreko nasan, petrolio gordina galtzen duten ontziak –lehenago inoiz ontzirik ikusi gabekoek diseinatuak– kulunkan dabilzan lekuan, atzerritarak eta horiek imitatzen dituzten mazedoniar aberatsak ikusten dira garagardo botila berdeen atzean eserita. Musika klasiko grabatua saihestu, eta Harrizko Zubia gurutzatu dut. Desorientazioa eten didan pasabide estu batean barrena, eta Mazedoniako eta Albaniako banderadun zirtzileriak saltzen diren postuetatik igaroz, Čaršija zaharrean sartu naiz. Muezzina kantuan hasi da minarete baxuenetik, ilunabarreko azken argi hondarra desagertzean. Segidan, beste dorre batzuk bildu zaizkio koruaren kantuari. Auzo zaharrean baxuak dira etxeak, denden gaineko solairu bakarrekoak. Bandera berdeak daude zintzilik minarete garaienetatik: Ramadan ostirala da, jendea meskitetan elkartzen da, baina atarian geratzen dira gehienak. Igande eiteko isiltasun bat isuri da Shkupeko eta Üsküpeko kale bare, hingatuetara. Zubia gurutzatu, eta Skopjeko hoteleko logelarantz jo dut, bihar goizean goiz abiatzeko asmoz.

Skopje → Bitola

Mehmed V.a trenez etorri zen Bitolara eta nik asmo horixe bera nuen. Azken-aurreko sultan otomandarra bere probintziak galdu hurren zegoen; nik, berriz, nire trenea galdu dut, Skopjeko geltokira oso goiz abiatu banaiz ere. Konfiantza ezjakinez jo dut bart gauean igaro nuen txarteldegira. Ingurukoari baino arreta handiagoa jarri diot neure kabuz ikasitako mazedoniera apurrari, eta ziurtasunez erosi dut «*edin bilet do Bitola*», «*denes... prviot*» (gaurko, lehenengoa). Eserleku batean eseri naiz gero, mazedoniera erabiliz nik neuk erosi dudan lehen bidaia-txartela aztertzeko. Orduari begiratu, eta goian dioena irakurri dut: Bitolarako hurrengo autobuserako txartela erosi dut, oharkabea. Garai bertsuan irten da Monastirrera joateko hartu asmo nuen trenea buru gainea dudan trenbidetik.

Azkenean autobusez joango naiz, beraz. Inoizko lehen ziazerba *bureka* jan eta edalontzi bat *boza* garratz apartsu onartu ondoren, autobus geltokira itzuli naiz. Bidaia-txartelak begiratzen dizkizute nasara sartzen utzi aurretik. Eserleku guztiak erreserbatuta daude. Nire ondoan eserita dagoen emakumeak atzera-aurrera darabiltza poltsa, ispilua eta telefonoa. Autobusak aldiriak zeharkatu ditu Autoroute Alexandre le Grand izeneko autobidean barrena. Berriro ere ibaidun arroila bat eta mendi-mazela basotsuak.

Gero, gorantz egin, eta Velesen ikuspegia agertu da okre geruza baten azpian. Zirkulazio bihurriak zubi estu batetik igaro behar du hemen, eta horrek azaltzen du aurreko Köprülü, *zubian*, izen turkiarra. Mazedoniako estugune hau nazioarteko albisteetan agertuko zen handik sei hilabetera, gazte langabeak, ezkutuan, ingelesezko «albiste faltsuak» idazten aritu zirelako, Ameriketako Estatu Batuetako hauteskundeetan eragiteko asmoz. Triste samarra irudituko zaigu akaso, baina mazedoniarrentzat heroiak izan ziren une batez, borrokan aritu baitziren... zerbaiten alde, zeren alde ez bazekiten ere.

Veles igarotakoan, herrialde menditsua marroi argiagoa da. Mahatsondoak, fruta-arbolak eta tabako koloreko gizonak traktore gainea, melokotoiz betetako gurdiei tiraka. Kamen Doleko jatetxe txiki batean gelditu da autobusa otordua egiteko. Pasabidearen beste aldean, ingelesez mintzo den adineko bikote bat dago eserita hitz gurutzatuak egiten; Balkanetan barrena bidaiari doazen australiarrak dira, autobusaren ondoan hizketan hasitakoan jakin dudanez. Geldialdiaren ondoren, errepideak mendian jarraitu du. Malkartsu eta ezegonkor, kokaleku ohien arrastoak igaroz, mantso doa bihurgunez bihurgune, zerua bazterbidean duela. Paisaia idor harritsuak erresistentzia jartzen du nonahi, mendate batean joan beharrean mendiaren bizkarra hautsiz bagindoaz bezala.

Bat-batean mendiaren paretak ireki egin dira: aldats berdeagoak agertu dira, urrunean hiri baten terrakota oasia, haitz koskor marroiak atzean dituela. Berriz ere mazedoniera probatuz, «*Toa e... grad... e Prilep?*», galdetu diot zilar koloreko ilea duen aldamenekoari. Totelka ekin ondoren, nahiko ongi jarraitu dut: Gai izan naiz esateko Bitolarantz noala, «*za kulturen proekt...*» eta, are, «*jas sum Friziski pisatel od Holandija*» (idazle frisiar bat naizela, «Holandakoa»).

Mendi aldapatsuen ondoren, beste herrialde berri bat agertu da, Pelagoniako goi-ordoki zabala, udan marroi eta lehor dauden mendi irregularren artean. Harrigarria da Balkanetatik kanpo zeinen ezezagun izan den hainbat mendez Mazedoniako eta Albaniako mendi tontor eta haranen kokapena. Nola ez, itsasoz bidaiatuko zuten Europako hego-ekialdean barrena. 1859an, Johann Georg von Hahn jakitun alemanak espedizio bat egin zuen, austriarrek babesturik, mendi, ibai eta atsedenlekuak zehaztasun handiagoz trazatzeko. Haren bidaia-kronikak neurtutako txundiduraz gainezka daude. Baina Von Hahnek azken helburu bat zuen: ibilbiderik aproposena bilatu nahi zion Vienatik Konstantinoplara Belgrad eta Salonikan barrena joango zen trenbideari. Mendietan ezkutatuta zeuden Prilep eta Monastir ez ziren ibilbide nagusi hartako geltoki bilakatuko.

Aldamenekoarekin hizketan jarraitu dut ingelesez; nire espedizio literarioaren berri eman diot. Psikologoa da bera, Bitolako erakunde mazedoniar-turkiar bateko kidea. Mazedonieraren mailegu turkiarrez aritu gara.

Berriro ere hiria utzitakoan, idorra da landa. Hurrengo mendikate berdearen oinetan agertu dira herrixkak berriro. Ulertu dut nola bizi izan den jendea hemen luzaro, mendien kontra pilatuta. Landa-eremu lauan behiak ikusi ditut, hoge animaliatik beherako talde txikia, eta tartean abeltzain bat, makila sorbaldan zeharka duela. Eguneko unerik beroena iristear da. Behi gutxi hauen jabeak egunero joan behar du larrera, zibilizaziotik urrun beti. Argi dago abeltzaintzaren idilioa gezurrezkoa dela. Jendeak alde egiten du landa gunetik, sozietate kolektiboak desegin egin dira, eta lur emankorrak belar txarrek jan dituzte. Laborantzako teknikak ere hondatuz doaz, biztanleen % 18 nekazaritzatik bizi bada ere.

Aste batzuk geroago garagardo bat hartzen ariko naiz mazedoniar ezagun batzuekin Bitolako kanpoko kafetegi batean, australiarrek eta hiritarrek eguna kafea hartzen ematen duten bitartean, eta eskala handiko laborantzaren potentzialari buruzko hausnarketak eta analisiak partekatuko ditut. Nire barneko kolonoa, etorkizuneko lur-jabea, azaleratzen sentitu dut.

Hiria! Gerturatzen ari den Pelister garaiaren piramide gris-urdinaren azpian, errepeidea zabalago baina okerrago bihurtzen da, etxeak eta dendak alboetan. Hala ere, nire begiaren ezker hegian, REK energia plantaren presentzia mehatxaria sumatzen dut kanpoko lautadan, lignito meatze izugarri baten ondoan, kedar iragazkirik gabeko tximinia kantzerigenoekin.

Bitola

Hiria irla baten modukoa da. Širok Sokak kale nagusiaren eta Tumbe Kafe muinora doan pasealekuaren arteko kilometro karratu luzean eusten die Bitolak bere biztanleei. Hemen, elkarren ondoan eseri, eta oinezkoak ikus ditzakezu, garagardoa eta kafea edan, eta gazta beroa edo artaburu egosiak jan. Udako ilunabarretan, kale bakar horretan gora eta behera ibiltzen da hiria.

Hiria etxe handi zaharrek osatzen dute. Hirigunean eta inguruan barreiatuta daude, haien lorategien artean sigi-saga doazen kaleak egin aurretik lurzorutik sortu izan balira bezala. Dragor

ibaiaren bazter dotoreetan, Von Hahnek bere lehen bisitan idatzi zuen bezala, «etxe berri handien ilara luze bat hedatzen da, non hainbat pasha militar, goi-mailako ofizial eta zerbitzari zibil bizi diren.

Etxe horien eraikuntza estiloa Ekialdeko eta Mendebaldeko nahasketa bitxi bat da, ukitu dotore bat ematen diena, eta etxe-aurreetako edergarriek, biziagi margotuak ez daudenean, itxura apain samarra ematen diete. Baina auzo hori alde batera utzirik, hiriko beste gune batzuetan, bidaian orain arte igaro dugun beste edozein hiritan baino etxe berri eta etxe-aurre luzitu berri gehiago dago, eta, horien aldean, Bitolia osoak printze-printzesen jauregi bat dirudi».

Etxeak karratuak eta mediterraneoak dira. Antzinako islamiarren eta valakiarren klase ertainaren hiria da, gune administratibo gisa baina ziurrenik baita tabako salerosketaren ondorioz ere loratu zen garaikoa. Etxeetako batzuk pastel kolorez berritu dira, beste batzuek nobleziaren sorrerako dekadentzia egoeran diraute. Etxe horiek bertan jarraitzen duten bitartean, etxebizitza komunisten, txalet zuritu eraiki berrien eta etxola erorien hondamenaren erdian, Bitola hiri historikoak etorkizun bat izango du.

Hiria behatzen dut, eroso jartzen naizelarik Sveti Dimitrija katedralaren eta Jeni Džamija meskita zaharraren arteko kafetegi batean, koaderno mahai gainean parez pare irekita. Kanpandorrera eta 2001eko «egoeraren» omenezko monumentura begira nago. Idatzi bitartean, ondotik igarotzen zait hiriko bizitza geldoa, bizitzak inguru hauetan ezinbestean izateko duen modua. Hiria irakurtzen dut, oraindik osoki ulertzen ez dudana hizkuntza batean irakurritako liburu baten gisan. Bi gazte nerabe bizikletan doaz espaloian, eta gurutzatzeko keinua egiten dute elizaren parean. Apaiz sabelandi bat atera da furgoneta batetik, ilea bustita, abitu zarpail bat soinean. *Frappe* bat eskatu du, eta emakume gazte bat eseri zaio aldamenen kafe kikara batekin. Txapinak daramatzen ama-itxurako neska erromani bat haur-kotxe bati bultzaka doa bi haur aurretik dituela. Dorrearen ondoko parkean, mutil musulman bat printze txiki baten moduan paratu da aita-amekin.

Familiak, jantzi dotoreak eta zapata takoidunak soinean, elizara joateko elkartzen dira. Hiru adineko ijitok osatutako musika-banda bat jende talde batean nahasi da, beren saxofoi, klarinete eta bateriarekin nota nekatu gutxi batzuk jotzen dituzten bitartean. Inork dirurik emango balie, gogotsuago joko lukete, zalantzarik gabe.

Etxe zaharren artean, pausu bat atzerago dago St. Kliment of Ohrid unibertsitate liburutegi nazionala. Eraikin xume bat da, sarrerara ematen duten hormigoizko eskailera luzeak dituena. Bitola, egun batzuen buruan jakin dudanez, benetako liburu-dendarik gabeko hiri bat da. Ondorioz, liburuekiko nire grinak esponentzialki egin du gora, baina hasierako egunetan behin eta berriz itxita aurkitu dut liburutegia. Nire gidari Marija interprete nuela, halako egun batean lortu dut liburutegira sartzea. *Šalter* edo harrera-lekuan –beirazko gotorleku bat da–, kide egiteko ditudan arrazoiak azaldu ditugu. Kontratu bat sinatu behar izan dut arauak eta arautegiak onartzeko. Bilatzen ditudan liburuak ba ote dituzten jakiteko, goialdean «Informazioa» idatzita duen atera bidali gaituzte.

Gela txiki batean, hogeita hamar urteren bueltako ile marroi argi motzeko gizon bat dago ordenagailuaren atzean eserita. Bulego txikia estalgarritz forratuta dago. Frutontzi baten margoa

du atzean zintzilik. Margolanaren markoan, VMRO gobernuko alderdiaren logotipoaren eranskailu bat dago sartuta. Bulegoan itxaron dugu, larru sintetikoazko eserlekuetan. Informazio-adituak dei bat bukatu behar du lehenik, eta ospitaleari buruzkoa dela ulertu dut. Ondoren, nire liburu-tituluak bilatu ditu online katalogoan, eta dagozkien kodeak paper pusketa batean idatzi ditu. Gero bere mahaiaren atzealdera gonbidatu gaitu, liburutegiak nola funtzionatzen duen azaltzeko. Antza denez, besterik gabe bilaketa egin daiteke online katalogoan edo aretoan erabilgarri dauden ordenagailuetan, eta guztiak nahiko erraza dirudi, azken batean.

Šalterra itzuli gara. Eskaileretan behera jarrai dezakegu, gordailura. *Gordailuzaina* agertu da bere lurpeko bulegotik. Morroi zahar altu bat da, ile zuria lepoaldean artistikoki luze, bibotea eta kobre horizko betaurrekoak dituena, kolore metaliko arin leunezko kamiseta batekin. Maitasun-bertso samurren poeta bat iruditu zait, edo sehaska-kanten idazle bat, bestela. Apalategietan barrena eraman gaitu. Beteta ageri dira, batik bat, mazedonierazko eta serbokroazierazko liburu higituz, hainbat urtez onarpenik gabeko ikasketa-liburu gisa baliatu ziren paper-azalezko liburu usatuz.

Liburu pila handi bat eraman dugu eskaileretan gora, eguzki-argitara. Eskolan erabiltzeko ondutako antologia batzuk, hemeretzigarren mendeko balada herrikoiekin hasten direnak, ustez, mendian ezkututzen diren lapur-heroriei eta *pasha haremen* batean amaitzeko arriskua duten neska kristauei buruzkoak. Maileguan hartzen tematu naizen liburua, nire hipotesiaren arabera, hizkuntzalaritza eta literatura mazedoniarren hastapenekoa da: Blaže Koneski filologo, funtzionario eta poetaren 1950eko hamarkadako gramatika arauemailea.

Lurrazalera itzulitakoan, liburutegiko txartelerako argazkia egin behar izan didate atezaindegian. Argazkilariari gustatu egin zaio ni *stranski* (atzerritar) bat izatea. Hark ere senitartekoak ditu mundu osoan, eta labur azaldu dit nongoak dituen aitona-amonak eta zer herrialdetan bizi diren bere lehengusuak. Mundua gu guztiona da, edo –esaera mazedoniar baten arabera– «pertsonak eta ez-pertsonak daude». Azkar lortu dut txartela, izena nik neuk aholkatu diedan moduan transkribatuta eta idatzita: Андре Рулоф Лојенга, *e* letraren aurretik *j* batekin, harro, Koneskiren gramatika arauen aurka, baina zoritxarrez baita mazedoniar arrunten sen linguistikoaren aurka ere.

Ilunabar horretan liburutegian izan naiz berriro. Katalogoaren bidez jakin nuen azken mazedoniera-ingelesa hiztegiak mailegatzeko aukera ere banuela. Liburu-jasogailuan jarri ditut tituluak eta kodeen paper zatia, eta nire liburuak geroxeago iritsi dira.

Isilik dago liburutegia. Ixteko ordua baino ordubete lehenago, ile-xerlo zuriko *gordailuzaina* eta *atezaina* halleko sofán eserita daude. Gordailuzainak irakurgela erakutsi nahi dit. Laugarren solairuan bi gela daude, mahaiekin, kristalaren atzean. Soil, apalategirik gabe, baina haietatik hiria ikusten dela. Poliki eta kontuz egiten dugu ingelesez. Atezainak errieta egin dio lankideari: «Egiozu mazedonieraz, bestela ez du eta sekula ikasiko!».

Liburuak gelara ekarri ditut, mahai gainean jarri, eta hortxe utzi dut ikerlana oraingoz. Laster dut hitzordua anfitrioiarekin. Gozo dator gaua, hiriak bere kaleak esploratzera gonbidatu nau. Oinez ibili naiz kalez kale garai batean *pazar* bizi bat izan zen auzo txiki batean, Maiatzaren Lehena izen berria jarri zioten bulegoan, ekialderantz eginez Dragor ibaian zehar. Pareta zaharrak eta erakusleho ahaztuak Pelagoniako lautadatik datorren sepia koloreko hauts geruza

batek estaltzen ditu. On Kixoteren kaskoa bezalako metalezko garbiontzi bat zintzilik dago bizartegi baten ate irekiaren gainean, eta laurogei urte izango dituen bizargina arin mugitzen da ispilu ilunduen eta kolonia eta pomada usain gozoaren artean. Ibai bazterreko zuhaitzak ere grisak dira eguzkia ilusentian sartzen ari denean. Txistu zorrotz bat entzun dut, bortizki errepikatzen, gero eta altuago, gero eta hurbilago. Trena da! Langarik gabeko trenbide-pasaguneak gurutzatuz, geldo doa Monastirrerera, bere azken geltokira. Ekialdeko bizitoki-eremuaren atzean triki-traka eta txistuka jarraitu du, eta ni beste kale bihurri batzuetara desbideratu naiz, atzera ere Širok Sokak kalearen bidegurutzera, geratuta nagoen lekura. Iritsi naiz Bitolara.